





[17]

1972-Traila



Ikasteak haurrentzat bai ahal du esanahi edo interesik? Hona talde psikologiak zer dion:ez, baldin eta ez bada behintzat haurren bai tan erresponsabilitatearen zentzua ernarazten. Orduan sortuko zaio ikas-gogga eta orduan ohartuko da irakaslea eta ikasleak, denak batera, eginkizun komun batetan parte-kide direla. Taldeko erresponsabilitateak zenbat-eta handiago, hainbat-eta ausarkiago ahaleginduko da haurra.

Irakaslea ere, ordea, bere haurren pareko bilakatu behar, beroiekin iharduteko eta taldeari bizi-eragina atergabean ezarriko badio.

Filloux



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

AINTZIN - SOLASA

Igaz erabakirik, uztail-abuztuko zenbakia Udako Ikastaldien inguru moldaturik izanen zen. Hala da oraingo hau ere, bai na neketan erdituriko haurra dela esan behar. Mutilak! ongi gosta duk oraingoa alafede!! Zer, udako eguzkiaren galdak jendearen ideiak eta lan gogoia agortu ote? Kamustu behintzat, bai, ez da dudarik.

Abuztuaren erdi alderako ondo eta bidez argitara behar zuena hilabete geroago. Hau duk hau abelera!

&&&&&&&&&&&&&&&&

Dena dela, zenbaki honen plana eginik zen alde aurretik, bederen horretaz arduratzen garen bizpahiruon artean. Bizpahiru arduradun esatean, iendeak aski trankil eta fresko besteren bizkar ardurara uzten badakiela ezin uka. Gainera, zenbaiten buruan, iduri du, aldizkariaren zama jasan ohi dugunok gustu handiz eta beste zereginik ez bagenu bezala ari ote garen.

Hona hemen nola zen plana:

- Zenbait lan edo gai sakon: udako ikastaldietan eman direnetarik interesgarrien-edo jotzen direnek osatuko zuten aldizkari honen lehen-partea.

- Kritika lanak, beharko ziren bigarren parte bat hornitzeko.

Informazio maila: kronika bezala-edo puntu axolazkoen batzuk bereziaz, haien berri ximpleki bezain soilki ematea. Hirugarren saila. Nahiz bata nahiz bestea, lehen aipatu bezala, udako ikastaldien inguru.

Hori horrela, hirugarren partea osatu da gehienik eta egokien, eta halaber, parte honek betetzen ere ditu bere pobrezian orrialderik gehienak.

&&&&&&&&&&&&&&

Halere, beharrik, lehendabiziko partea, hein batetan, ez sobera baina, osatzeko bidea egin duela -eta eginen duela - uda guztian zehar psikologiari buruz estudiantan ihardun den lan sailak. Honek bederen, uste dugu, hilabete oro ez bada ere, biz behin-edo emanen daukula argitara psikologiako zenbait gai.

Lehen-parte hau horni ahal izateko beharko zen hurbildu ikastaldietan gaiak eman eta desarroilatu dituztenen gana, non-eta gai oro eta guztiak zozokeria huts izan ez diren. Hirugarren parteak, kronika sailak alegia, salatzen du hau egia ez dela. Beraz, gure axolakabekeriaren fruitu bat gehiago. Beti akuilatzen ibili behar ote? Edo-eta ez ditugu bi begi ikusteko eta buru bat ederra gauzak pentsatzeko?

&&&&&&&&&&&&&&

Orain danik, gauza bat ere heldu zait burura. Zer etorkizun ote duen aldizkaria sastar honek? Horra esan, argi ta garbi.


Zer etorkizun: diru aldetik, ez bait dabil ongi eta gutiagorik erre puntu honetan; pedagogiaren munduan ditugun ideiak espresatzeko edo zerbait idazten trebatzeko medio bezala; nondik-norat ote dohan usnatzeko, baldin-eta badabil behintzat, eta kritikatu eta denon bultzadaz bide berriak urratzeko tresna bat bezala.

Bada asmoa, aldizkari-arduradunen ekipoa berritzeko eta hor-

4

nitzeko, eta berebat, dinamika berriarekin aurtengo urtean ekiteko.
A zer nolako porru-jorratzea gertatu behar duena bazterretan!

Baina behintzat, inola onar ez daitekeena zera da : ez hil eta
ez bizi, ez ur eta ez salda ibiltzea.



Haurra eta bere berezitasuna

Heziketaz mintzatzean, gizon berri batetaz mintzatzeko gara kasu hanitzetan. Baina "Pedagogia eta gizartea" liburuaren egileak garbi dionez ez dago liberaziorik kondizio objektibuetatik kanpo. Ez du merezi liberazioaz, gizon berriaz eta abarrez hitzegiterik kondizio objektibuetatik kanpo. Hori, Idealismo eta Moralismo hutsa izango litzake. Gure inguruko kontraesanen iturria transformatu arte ez dugu eskola libratuko. Hau beraz, garbi dago.

Baina beste aldetik, ez daiteke egiazki geure zapalketa ekonomia soilera muga. Eta ondorioz ez dakioko Ekonomia saileko aterabideak bakarrik eskaintzea.

Zapalketa hau dela bide, iende menperatuak zapalduaren psikologia asimilatu du. Beraz, zapalketari eusten dioten mekanismo psikologiko horiek analizatu eta argitara ateratzera derrigorrezkoa dugu gizarte irauli eta askatu ahal izateko.

Hau horrela delarik, eta lan honen garrantzia ikusiaz, talde bat lanean entseaitu da udan zehar. Gure helburua psikologia alderako zenbat joera eta korrente aztertzea zen. Oraingoz, hortara iritxi ez garenez, soilki nere lana agertzen entseiatuko naiz.

Gainera, gizarte kondizionamenduek haurraren duten zerikusiaz eta eraginaz ideia garbiak edukitzea beharrezko dugu baldin-eta pedagogia alorrean zuzenki jokatu nahi badugu. Hau, guztion lana dela nork uka lezake.

HUTSETIK BI URTE ARTEKO HAURREN BEREZITASUNAK

Jaiotze unetik, hizkuntza norberegian arte dagoen denboraldian izugarriko aburrerakada lortzen du haurrak bere gogo alorrean.

Bere garrantziaz ez bide gara ohartzen, zeren hitzik ezean oso zaila baita sentimendu eta adimenduaren aurrerakada neurtzea. Ezezaguna izateak ez bide du bere garrantzia guttitzen, zeren haurrak lehere ngo bi urtetan, nahiz neurri ttikian izan, iraultza aipagarri bat lortzen duela esan dezakegu.

Hastapenetan, alegia aur jaio berriak, gauza oro bereganatzen du, konkretoki bere gorputzean tinkatzen da; aitzitik, amaieran hizkuntza eta pentsamenduaren jaiotzarekin, haurrak bere burua, bere gorputza besteen artean finkatzen du; berak hemeki hemeki eraiki duen inguruan eta orain bere loturetatik at nabari duen inguru giroan murgiltzen da, besteen artean beste bat izatera iritxiaz.

Beraz, prozesu honetan, jaiotzera doazen adimen eta afektibua alderdi hauek direla-eta lortzen den iraultza eta aldaketa aztertzen ahaleginduko gara.

1.- ADIMEN ALORREKO ALDAKETA

a) Ohargabeko zirkinak (mugimenduak)

Haur jaio berriak, bere barne senari jarraituz, so eginaz jokatzen du. Barne sena hauek ohargabeko ekintzetara bultzatzen dute haurra, pasibitate eta axolakabetasun guztitik urrun dauden jokaera batzuetara hain xuxen.

Ohargabeko ekintza hauek denborarekin eta eginaren eginez lantzen doaz, lehuntzen, organizatzen. Horrela, haurra, ekintza hauek lantzen doan era, orokortasunean murgiltzen da, errealitatea hedadura handiagoz agertzen zaio.

Honi jarraiki, haurrak, goseak eraginik, ditia dastatzen du; baina hau nahikoa ez duelarik, hatzak, behatzak, xurgatzen hasten da; bere eskuetara heltzen diren gauza guztiak ahora zuzentzen ditu dastatzeko asmoaz. Konkretuki, haurrak bere inguruaren zati han-

di bat atxikitzean lotzen dio eta honela, zera esan dezakegu: alegia, haurrentzat une honetan, errealitatea, inguru dasta litekeen zerbait dela.

Aurrerago joanda, inguru hori xurgatu ez ezik, ikus litekeen zerbait, entzun litekeen zerbait izatera bilakatuko da.

Garbi dakusgu, beraz, memento honetan errealitatea hedatu, jeneralizatu egin dela.

b) Ohituren organizatzea, eraketa.-

Ohargabeko ekintza hauk, esperientzia dela bide, zaintzen, organizatzen hasten dira; hots, bati jarraiki burua itzultzen du edo hitzen doan zerbaiti buruarekin jarraitzen dio.

Ohartze aldetik, haurrak zenbait pertsonen aurrean irribarre eginen du, ez noski pertsona edo gauza hoik zehazki ezagutu dituelako, ez, zeren oraingo haurra ez baita gauza BERA eta beragandik at dagoen errealitatea bereizteko gai.

d) Adimenaren bilakaera.-


Prozesu hontan aurrera jarraituaz, adimenaren, aurrerakada eta eraketa aztertzen enseiatuko gara.

Lehenik, Intelijentzia baino lehenagokoa, alegia barne pentsamendua, dela esan dezakegu, Baina Intelijentzia hau osoki dugu praktikoa, hots, gauzak erabiltzearekin eta lehen eraturiko ekintza batzuek berriztatzearekin nahikoa du.

Baina nola eraikitzen dira ekintza intelijente hauk?

Haurra, aurretik eginiko ekintza guztiak organizatzen eta bereizten doa, esperientzia ondoren ondorioak norbereganatzeko askatasuna eta ahalmena lortzeko asmoz. Horrela, haur batek ekintza

bat dela bide ondorio bat ateratzen badu (host bat, oihartzun bat..) bere gogoko ondorio bat noski, alde batetik behin baino gehiagotan ekintza bere egiten ahaleginduko da, baina bestetik ekintza hori delat ahalik -eta aldakuntza gehienak egingen ditu ondorioak ere aberatsagoak izan ditezten.



Haurrak, dakusagunez, baditu ekintza eskema batzuk, eta konkretuki eskema hauen arabera errealitatea du aztertuko, taxutuko, ulertu nahiean bezala, honela gauza bat hartzen duenean, igortzi, astindu, eskuztatu egingen du. Hona hemen ekintza eskema konkretu batzuk.

Lehen aipaturiko ulertu nahia erabiltze-alorrean koka dezakegu; alegia haurrak, nahiz-eta bat edo sei urtekoa izan, zertarako galderekin du mugatzen errealitatea, gauza guztiak zerbaiterako dirrela agertuaz, pentsatuaz.

Ekintza eskema hauk harremanean jartzen direlarik, elkarren arteko lotura bat sortu ohi da; bide honetatik abiatuaz eta lotura honen bidez sortzen da lehen aipaturiko intelijentzia praktikoa.

Intelijentzia aurrerakada honek, haurrak hastapenetan, gauzarako harremanetan zuen lekua aldatu bide egin du.

Adimen bilakaera honen asiera, NI eta inguruko errealitatearen artean ez datza inolaz ere eta segurki esanik bereiztasunik. Ni-ak eta inguruko errealitateak errealitate orokorbat osatzen dute, zehaztu gabeko errealitate bat hain xuxen.

Zehastasun-eza honek darama, hain xuxen, gauza guztiak kanpotikako errealitate osoa NI horrengan kokatzera. NI hori da lehen, NI hori dago errealitatearen erdian. Zeren bultzadaz heltzen da maila honetara? NI horren ezaguera ezak, NI hori oharkabea izan

teak dakar segurki errealitatearekiko zehaztu gabeko batasun hori. NI honetaz ohartzen joaten den eran edo neurrian, joaten da kanpo ko errealitatea objetibatzen.

Laburki esanik: hasieta batetan ohargabeko egozentrismo oso bat nabari dugun bezala, sensorimotriz intelijentziaren aurrerakadak errealitate zehatz eta konkretu bat eraikiko du. Giro honetan, ba-koitzaren gorputza beste hainitz gauzen artean elementa bat izanen da, eta gorputz honen baitan egonen da kokaturik barne bizitza.

Intelektual iraultza honetan lau kategoria berri eraikitzen dira: Objetoa, Espazioa, Kausalitatea eta Denbora.

.- OBJETOA.-

Gauza bat, objetu bat ongi konprenitzeak zera eskatzen du, nereganatutako irudia, zerbaiten irudia dela pentsatuaz, nik ikustatuz bizirik eta izaten jarraitzen duela pentsatzea, sineste a.

Baina haur ttipiak, esne aroan (laktantzia), ez bide du gauzarik ikusten, ezagutzen. Zenbait pertsona eta gauza ezagutzen du baina honek ez du esan nahi, ikusi ezean, lehen ikusitakoa idurikatze-ko ahalmena duenik.

Alegia, guk gauza bat ikusten dugunean, gauza honi buruzko burutapenak izaten ditugu. Ikusten duguna ulertu egiten dugu edo ulertzen ahalegintzen gara. Aitzitik, haurrak haro hontan gauza bat ikusi arren, ez bide du ulertzen. Orduan ikusi ezean, ez du lehen i kusitakoa idurikatze-ko ahalmenik.

Lehenengo urtearen amaieran bakarrik bere ikusmiratik at dauden gauzen bila hasten da. Berarengandik at dagoen errealitatea nortasun bereizi batekin agertzen hasten zaio.

.- ESPAZIOA.-

Gauzen eraikitzearekin bat doan errealitate

bat dela esan dezakegu. Hasiera batetan zenbat zentzu hesparru (zentzuen inguruamendua alegia) hainbat-eta elkarren arteko loturarik gabeko espazio gehiago. Bigarren urtearen amaieran espazio orokor bat hedatzen da. Espazio orokor honen gauza guztiak bere ganatzen ditu harremanean jarriaz; gauza hauen artean aurkitzen da bere gorputza.

.- KAUSALITATEA.-

Bere egozentrismoari loturik dagoen zerbait dugu. Nolabaiteko ekintza batek sortu duen halabeharreko ondorio batek, haurra, ondorio sortzaile den gauza horrekin harremanean jartzen du.

Horrela, egun batetan, sehaskako lokarriari tirazo bat emanaz gainean zeuden zenbait gauza lurreratzea lortzen badu, handik aurrera lokarritik tiratzeak halabeharrezko erortzea dakar haurrarentzako.

Aitzitik, bigarren uretan haurrak gauzen benetako harremanak ezagutzen ditu eta ondorioz KAUSA-EFEKTO lan eremua askoz ezagunagoa zaio.

Beraz, haurrak ba du bere Espazio eta denbora berezia. Guk ezin dezakegu haurraren mundua bortxatu errespetatu eta bultzatu ez bada.

Gure eginkizuna haurrak inguruan dituen gauzak esperimentatzera, jokatzera, ohartzera bultzatu behar du haurra. Hau ez egitearekin haurraren aberastasun guztiak murrizten ditugu, haur hori, bizi-rik gabeko zerbait sortzen dugu.

Zer ikusi du gizarte inguruak? Zer eragin dute haurraren gizarte kondizionamenduak?

Gizarte maila ezberdinetakoa izateak zer ondorio dakar?

2.- AFEKTIBU BILAKAERA

Puntu hau aztertzeke giza jokaera az-

tertzea, lehen aipatu dugun bezala ekilibrioruntz doan giza jokaera aztertzea, beharrezkoa dugu. Giza jokaera honen barruan afektibitate alorra eta intelijentzia alorra sobera askatu ezinezkoak ditugu, eta gainera, bata bestearenganako osagarri.

Honela, lehen-hastapenetan haurraren jokaera lehen-haroko errefleju nabari ditzakegu: hemen koka dezakegu, haurraren elikatzea. (janari hartzea)

Gero, bigarrenengo haroan, hots, ohitura eta perzepzio haroan, oinarrizko zenbait sentimendu nabari dezakegu, hots, plazerra eta sermina; atsegina eta atsegin eza, (gogoko eta gogait duena). Haro honetan, nolabaiteko egozentrismoa nabari dezakegu haurraren, baina ez da, noski, bere gorputzarenganako neurririk gabeko maitasunagatik, BERA eta kanpoko errealitatearen arteko bereiztasun ezak, zehastasun ezak, sortua baizik. Sikoanalistak NARZISO haroa deitzen diote baina ohartu garanez, NARZISO gabeko NARZISO haroa besterik ez da.

Intelijentzia aurrerantzean, alegia errealitateaz ohartzen denean, eta kanpoko errealitate hori, dela medio bere ekintza, bereganatzen ahalegintzen den eran sentimenduak ere objetibizatzen doaz; alegia, BERAgandik askatuaz, beste errealitate batzuetan kokatzen dira.


Orduan sentimenduak ere, bereizten, ugaritzen doaz, desiratu den zenbait ekintzen aurrean lorturiko arrakastak, ala frakasoak, poza ala tristura, ahalegintzea ala ez-axola, arduratzea ala ez arduratzea ekarriko du.

AMONDARAIN

12 HEZIKETA ASKATZAILEA

Teori aldetik honetaz zerbait jantzi nahi duenak, PEDAGOGIA ETA GIZARTEA liburua irakurtzea du onena. Ez noa hemen hangoa errepikatzen.

Hango ideia nagusia beste modu batera azaltzea aski dut hemen. Guztiz eskematikuki, hau litzake:



Autoritatearekiko dependentzian heziak izan gara, goitik beheraino, sail guztietan. Eta, bigarren memento batetan, reakzio mementoan, kontradependentzian. Hots, norbaiten eta zerbaiten babesean beti lehenik. Norbaiten eta zerbaiten Kontra harrika gero. Familia, erlijio, eliza, ekonomi, politika erakunde denek postura hoi etara bultzatu gaituzte.

Lehen Freud-en erara esanaz, Aitaren beharra dugu:

- a) babes gaitzan, ala,
- b) harrika dezagun.

Autonomiaren eremua oso guti landu dugu. Lehenengo bi etapak superatzen ez dugu jakin, ieneñalean, herri mailan.

Heziketa askatzailearen zeregina hau dateke, funtsean :autoritatearen saila hertsitu eta autonomiarena zabaldu . Edo eta, autoritatez autonomiaren sailean integratu .

Hori, eguneroko praktikan egin behar dute hezitzaileek . Lehenik, beren artean . Hezitzaileak bere burua askatzen ez badu, autonomiaz jokatzeko ez badaki, alferrik da dena . Eta, horrekin batera, guraso eta haurrekin egin behar duen lana da .

Galdera batzutatik has gaitezke, autokritika serio batetara heltzeko: Nire eguneroko bizitzan, zertan bizi naiz dependentziaren eta kontradependentziaren munduan?

Zer egiten dut nire eta haurren autonomia eta zentzu kritikoa lantzeko?

Ikastaldiko talde laneko galde-erantzunek gehiago konkretu dezakete hau .

EUXEBIO



14 Goiherriko Ikastaldia

Hiru puntu pentsatu zuten Goiherriko ikastaldirako:

- haurraren afektibitatea eta sexualitate ezagutu .
- helduen afektibitatea eta sexualitatea ezagutu .
- haur-helduen elkar heziketaren arazoa argitu .

Ikastaldia hurrez zerbait gertutu behar zuen taldea berehala konturatu zen hontaz, hots, hiru puntu hoik zailak eta zabalak direla. Eta, behin haurraren eta helduaren afektibitatea aztertzen hasita, oso luze joanen zitzaiekeela. Ez bai zuten sikanalist bulgarizazioaren mailan gelditu nahi. Wallon, Piaget, Zazzo etabar berriz ez zitezken gauetik goizera azter. Horregaitik, beren hasierako programa dotore hura piskat murriztu beharrean aurkitu ziren. Ez ziren gertu aurkitzen, ez sikologiz, ez sexologiz, ez pedagogiz, goiko puntu hoik behar bezala erabiltzeko.

Orduan, hasiera batetan, ikastaldia udazkena arte atzeratzea pentsatu zen. Baina, bestalde, udako azterketa nondik nora zuzendu du jakiteko beharrezko jotzen zuten zein puntutan aurkitzen ziren ikustea. Hau da, beren haur eta helduaren afektibitate eta sikologiari buruzko ezagutza zein zen mugatzea. Hori premia premiazko zitzaien, gero udan inbestigazio programako puntuak ondo planteatuta edukitzeko.

Guzti hori kontuan izanik, ikastalditik ez ziteken gauza handirik espero. Ikastaldi bat gehiago izan zen. Talde lana egin zen, baina gaia aurrez inbestigatu gabe zegoen. Hontara mugatu zen talde lana: inbestigazio metodorik gabe irakasle bakoitzak bildutako dato eta esperientziak, berriz ere metodo handirik gabe eztabaiatu eta biltzera.

Ikastaldiko hitzaldiak - hitzaldi gisa emanak izan bai ziren, nahiz ta guztiak edo gehienak konturatu metodo honen ahuleziaz - helduaren sexualitateari buruzkoak izan ziren gehienak. Gizon emak emakumeen sexual anatomofisiologineurologiaz zerbait esanda gero, masturbazioaren "zirkuito laburraz", anomalia eta desbiderazio sexualen "zirkuito estereotipatuez" eta sexual hartueman "jatorren" "zirkuito luzeaz" ihardun ziren.



Sexoneurologiak sexosozioologiarekin dituen loturak ez ziren a haztu bertan, zeren garbi ikusten bait zen sexual desbiderazio, inpotentzia eta hoztasunen sorreran inguru gizarteak duen zer ikusia. Honez gero, ezina zitzaigun gizon eta emakumearen situazioak aztertu gabe uztea. Ba zekiten, ma sokeriaren eta ikuekeriaren sorreran bezala, gizonezkoaren maitatzeko "inpotentzietan" eta emakumearen afektibitate "hoztasunetan" giza inguruak zerikusit nabarrena zuela. Ez ziren "zergati-efekto" eskema itxian mugitzen. Gizarte egiturekin kontaktzen zuten bezala, kontaktzen zuten psikologi egiturekin ere. Eta bifisioeurologi egiturak ez zituzten ahazten. Beren ezagutzen mailan, jakina.

Haurraren afektibitate sexualitateaz ezer gutti ikusi zuten. Sikanalist bulgarizazio mailan mugitu ziren. Jabeturik, halere, teori hoi en mugez. Ezertan bai ta hontan saiatu ziren: sikanalist bulgarizazio hoik desmitologizatzen. Jende asko baita maila horretan mugitzen dena eta bide hoietatik denbora galtzen duena. Ez zen nahi udan haurraren afektibitatea aztertuko zuen taldea zulo berdinera eror edin. Osasunean sendatu nahi zen iendea.

Alderdi bitatik kritikatu ziren teoria sikanalitiko tradizionalak:

- a) Aho haro, ipurtaro, zakil haro eta izkutuko haroaren sozio-
genesiaz luzaz ihardun ziren. Sikanalisi bulgarizazioetan a
gertzen diren bezala, haro hoik haurraren eboluzioan berez-
ko bezala aurkeztea, W. Reich, Malinowski eta M. Mead-
en azterketan arabera kritikatu zen.
- b) Sikologia experimentalak egiten duen haro hoi en kritikaz e
re zertxobait ikusi zen. Sikologia horren eskola ezberdinak
positiboki ziotena udan aztertze ko utziaz.

Honela beraz udako lana zein zitekeen nolabait begiztatu zu-
ten. Harrez geroz, talde bat ari da Piaget, Wallon eta Freud azter-
tzen.

Baina, zer ikastaldian planteatu ziren heziketa eta pedagogi a
razo konkretez? Lehenik eta behin, helduak ez daitezkeela haurra-
ren kide, hots, hezitzaile izan, beren sexual afektibo arazoei irtēn-
biderik ematen ez dieten artean. Haurren afektibitate eta sexuali
tateaz objetiboki ihardun nahi badute afektibitate askatu eta askatzai
tzaile bat behar dute.

Hori horrela dadinean, "hezitzaileek" ez dute, haurren sexual
jokuez argibide bat eskatzen zaienean, "zenbait haurren gehiegiz-
ko hormoi sekrezioaz" hitzegingo, haurraren hormoi sekrezio norma
laz hitzegin baino lehen. Donostiako ikastaldian haurraren sexuali
tateaz ari zela emakume katalan hark egin zuen bezala. Hori horre
la dadinean, guraso batek ez du haurra despistatu nahiko, umea ama
ren sabelean nola sartzen den haurrak galdetzen dionean.
Hori horrela dadienan, hiru-lau urteko haurraren ugalkin eskuztatze
ak ez ditu hezitzaileak kuriosidade anatomiko soilera mugatuko, ze
rebroan anatomia zati hoik registratzean amaitzen den (asetzen den)
kuriosidade soilera.

Hor daude galderak:

- 1) Hiru-lau urteko haurrak sarritan fetitxizatzen du "ipurdia"
hitza; zerk darama hortara?

- 2) Neskatil eta mutilaren atal genitalen ezberdintasunaz jabetzen denean ez ahal zaio atal hoien funtzionalitatea erakutsi behar? Gainerantzean, irudipen fantasmaticoak sor bai lezazkioke haurrari.
- 3) Ez ahal da hori memento egokia aitak bere bizitzaren sorreran izan duen parte nolabait ezagutarazteko?
- 4) Haurren sexual jokuei zein irtenbide ematen diegu? Lehenik, sexual joku hoik gehiegizko hormoi sekrezioa duten haurretan bakarrik gertatzen ahal dira?; zein da orduan haurraren hormoi sekrezio normala? . Bigarren, sexual joku hoik interes mundu hertsia bat bat dutenetan bakarrik gertatzen ahal dira eta gertatu behar ote dute? Ezagutzen ahal dira hemen beste kulturen azterketak?
- 5) Zein heziketa eta gizarte moldetan dute sustraia haurraren desbiderazio afektibo eta sexualak?
Maitatzeko gaieztasunaren introiektzioa eta ondorengo proiektzio destruktiboaren mekanismo psikologikoak zeintzuk dira?
- 6) Non du sustraia eta nola kokatzen da gure egitura psikologikoan eksklusibismo afektiboa (zenbait komunitetan, bikotea ukatu gabe, hain gonbatitua den eksklusibismoa)?
- 7) Zergatik eta zein sentidutan egiten dute 5etik 8 urtetara bitarteko haurrek ezkontzari buruzko hainbeste galdera?
- 8) Zergatik mutil eta nesken joku eta marrazki hain nabarmenki ezberdinak?
- 9) Nola ikasten du haurrak bere adierazpen afektibo eta emotiboak gordetzen eta isiltzen?
- 10) Arazo guzti hoiei erantzun askatzaile bat eman ahal dezake bere maitatzeko eta hartueman afektibo batzutarako gai

tasunik eza hartuemanik ezaz agertzen duen batek?

- 11) Arazo guzti hoeintzako jokabide pedagogiko egokirik ba ote du bere maitatzeko inpotentzia eta hoztasuna masturbazioan eta sexual desbiderazio zenbaitetan agertzen duen batek?
- 12) Heziketa askatzaile bat eraman ote dezake gaurko bikote-familia patriarkalistaren giro zapaltzailean inpotentzia eta hoztasuenan eskolatzen ari den batek?
- 13) Haurraren errealitate afektibo eta sexuala ezagutzea eta dagokion pedagogia berez erraz ez izanik, arazoa ez ahal da askoz zailagotzen heziketa askatzaile baten kontra doan inguru bat dugunean eta inguru hori bere hortan gorde nahiluketen gure prejuizio zapaltzaileak tartean sartzen diren an?

klaudio eta marixabel



TALDEEN DINAMIKA

Modan dira egungo egunean gisa honetako gaien estudioak, eta gu ere premiarengatik edo...zer ikusi, baina Taldeen Dinamika deitzen den gai horretaz ikastaldi bat egin dugu bi lagunek uztailean Madrid-en.

Bost eguneko gora behera izan da guztia. Bost egun bete-betuek, ordea, bakoitzean zortzi orduko iharduna osatzen genuelarik.

Hasteko, esan dezagun, psikologia gaia delataledeen dinamika, eta beste zenbait xehetasunen berri eman ondoan adieraziko dau tzuegu zer-nola muntatua den aipaturiko ikastaldi hau.

" Instituto de Interacción y Dinámica personal" delako erakundeak antolaturik zen. Lekua: Madrid-tik 13 Km, Majadahonda deitzen den herrian. Etxe ederra. Bero egiten zuen baina igeritegi bat ere bagenuen bainatzeko eguerdian nahiz gauean.

Hogeitamar laguneko ikastaldia. Ez dute gehiagorik hartzen, eta sei psikologo arduradun gurekin. Uztaileko lau astetan zehar gauza bera:aste oro ikastaldi bat.

Zer metodo, zer prozedura jarraitzen den.-

Hasi ordurako, xehetasun apur batzuk ohar bezala emanik, buru-belarri zaio lanari ekiten edo atxikitzen.

Lehenik, hogeitamarrok talde berean ariketa batzuk ditugu burutzen isiltasunik handiengan. Adibidez, psikologoek esaten dute: "Orain, denok isilik... pentsa zazute edo pentsa zazu urduri edo ezin egonez zauden ala ez. Baldin hala bazaude, koka zaite hor eskutian; lasa dagoena ezkerretan". Eta kriterio honen arabera, talde

bitan banatzen gara. Gero, beste zenbait kriterioz baliaturik, beste moldeko taldeak osatzen johan ohi ginen. Hala nola: gazte ala ez-gazte senditzen naizen; emakumezko ala gizonezko izatearen arabera; nere ingurumunduan aintzindari (lider zen hitza) ala laguntzaile naizen; buruak (arrazoinak), bihotzak (motorrak) edo eskuak (ekintzak) gidatzen nauen bereziki bizitzan zehar, etab.

Beraz, gisa honetako ariketak direla medio sortzen da elkarrizketa bidea hain leku eta izakera diferenteko hogeitamairon artean; eta ondoren, lehendabiziko goizetik hasten da talde lana, hots, hogeitamarreko talde osoa hirutan zatikaturik eta multzo bakoitza psikologo biren laguntza duelarik abiatzen da taldeen dinamikaren esperientzia, bakoitzak bere prozesu berezia jarraituz.



Talde hauetariko bakoitzaren lana da ikastaldiaren ardatz eta, agidenez, eginkizunik garrantzitsuena. Honek, sekulako inportantzia du, zeren-eta kasik ez baita talde dinamika teoriaz ikasteko modurik. Behar da hantxe berean bizi, bakoitzak osatzen duen taldearen barne, bere tira-bira, eztabaida eta gora-behera guztiekin. Ez da han teoriantzat leku handirik eta noizbait zerbait teoria azaltzen badute ere, egunaren buruan egin den edo bizi izan den egoera eta esperientziaren argitzeko, adigarri edo osagarri dadin. Ez da beste teoriarik ematen. Argiro esaten dute: liburu edo ideien mailako ikastaldia ez-baina, bizitzaren eta esperientziaren mailako dela. Ez da libururik, ez-eta testorik. Ozta ozta uzten dautzue zenbait apunte hartzen. Luma erabili behar denean, ariketaren bat egiteko tresna bezala, erabili ohi da.

Halatan bada, hiru parte ditu ikastaldi honek: ariketak (denek batera), talde lana eta teoria. Nolanahi ere, arestian aipatu bezala, bigarren partea, hots, talde lana da oinarri.

Maiseaketa.-

Ikastaldiari kritika han berean ere egin genion. Gu baino be-
roagorik azaldu zen, ala fedel goropen eta lausenguetan. Halako
kursilorik! Behar zela handik jendea pasaerazi eta horretarako aha
legindu jendea hara bidalitzen.

Dena dela, guztiaren ondotik, alde on eta txarrak ikusirik, be-
har da esan merezi duela ikastaldi hori egiteak. Ez da jakinduria
handirik biltzen, baina esperientziaren mailan pertsonaren komuni-
kazio bideak zer-nola direnetaz aski ongi jabetu edo ohar liteke.

Gainera, komunikazio arazoa sentipenen munduan planteatzen
dute eta horretara bultzatzen. Izan ere, maiz askotan, ez bait gara
ideien munduan baizik komunikatzen elkarrekin, eta sentipenen mai-
lan komunikatzeak beldur gaitza ematen dauku.

Inorekin mintzatzeko sentipenen mailan kokatzea kategoriaz
jaistea dela uste dugu eta normalki ez gara konturatzen zenbat ta-
bu eta hertsikeria dugun gure baitan edo bizkarraren gain.
Ez-eta ere funtsean zer-nola oztopogarri den gizarterako edo talde
lanean iharduteko kondizionamendu hori.

Pertsona, gure arteko edonor alegia, ideiaz, ohorez, kargu edo
enplegu on batetaz edo diruz jaxten delarik, pertsona ez-baina,
pertsonaia bihurtzen da. A zer-nolako nortasun pertsonalitatea due
duen holakok edo halakok esan ohi dugu, eta agian pertsonalitatea
deitzen dena azaleko iantzia du soilki edo kanpora begira agerbi-
detzat dadukan plataforma hutsa.

Bestalde, egia da baita, interes, helburu, ideia edo ekintza ko-
mun batzuek mugierazten gaituztela gizonok gizarterako, baina, sen-
tipenen mailan elkarreratzen edo elakar aditzen ez badugu, nahiz-e-
ta lan gaitza izan, talde batek ez lezake behar bezala aurrerapideri-
rik egin, ez sakondu, ez-eta taxuzko ekipo lanik egin. Hain da, be-

rriz ,derriorreko gaur egun talde lana .

Funtsean , interesgarri gertatu zaiku pertsonarekiko ikuspegi honetaz jabetzea, eta begunez egun elkarrekin bizi izan dugun esperientziaren fruitu bezala ikusten badugu, are gehiago estimatzera garamatzi . Ez da dudarik, kili-kolo zenbait ideia hartzeak baino a reago balio ukan duela guretzat .

Halere, alderdi txarrari beha, entsegutegi bat izan den sentipenarekin gelditu gara . Airez anpaturiko puztukiak izan bagina eta sikologoek zulaturik, arras hustu bagina bezala . Horrelakorik Agian, baliteke bakoitzak estalgarriztat ongi atxikirik daramagun pertsonalitatea eraztea hustasun honen kausa izatea . Horiek oro, ezin uka giza koxkor batzuek iduri genuela sikologoek eskuetan .

Horretaz aparte, pertsona, bizi den sozio-politiko kontestu edo inguru-mundutik at gertatzea, eta horrela gertatzen zen edonor ikastaldi honetan, aski artifiziala ere badela esan behar . Urruneko uhartetebatetan ere ezin gehiago noski . Gure aldetik ikusirik, errazki esplikatu daitezkeen gauza da nolana ere . Pertsona bere inguruarekiko referentziarik gabe, aski ongi indibidualkeriaz horniturik bait da . Eta giro hura, han ginenon arteko erlazioak salbu, halaxe zen .

Guztira, ordea, kontuak eginik, positiboa izan dela iduritu zaiku . Guk behintzat, aberasgarri jotzen dugu, baldin-eta gorago aipaturiko arrazoinak gogoan hartzen baditugu . Inola ere propaganda egiteko asmorik gabe baina, Abenduan antolatuko omen berriro xandaren bat edo beste horrelako ikastaldiak .

EUXEBIO eta JAXINTO

BET-HERRI ²³ ALDEAN...

Aurtengo ikastaldiak taldeez eta mailaz eratuak izan dira; honela, Donostian bildu inguru bertako irakasleek bildu ginen. Baziren beste zenbait bailaratakoek ere, baina batitk bat inguruko lau bailarak ziren ikastaldia osatzen zutenak.

Ikastaldiko lanaren haria hauxe izan zen: a) Espresioa. b) euskal kultura. d) Pedagogia eta gizartea. e) sikomotrizitatea. f) sentsu heziketa. g) Pedagogia. h) Sikologia.

Esan beharrik ere ez da aste bakarrean lantzeko sobera gai dela. Beraz, gure ikastaldian, gain-pasara ematea besterik ez genuen egin. Bestalde, iende multzo handiegia zen hura, nahiz talde lanak eratzeko eta elkar-hizketak sortzeko ere. Eragozpen hauek, lanaren benetako parte hartzea ezinezkoa egiten zuten.

Gaiari dagokionez, ez ziren hauek goitik behera zuzenduriko errezeta antzera emanak izan, baizik-eta gure errealitatearen ezagutze eta jabetzen lagunduko zeukuten erara egokituak. Izan ere, bada ordua gure ekintzaren benetako zentzune bat ukan dezagun.

Gero eta garbiago ikus ahal izan dugu baita ere ikastaldia urte osoko lanaren ondorio behar duela izan eta ez hau urte guztian egin behar dugunaren oinarria. Bistan da, urtean zehar lanik ez badugu egiten urtean behingo ikastaldiak axaleko erantzun bat besterik ez daukutela emango eta hori ez genuke behintzat aski izan behar.

Eguneko ordu guztiak beteak genituen, eta han ez zen posible talde lanean (emandako gaiez aparte alegia) gure egunoroko gertakizure n informazio ematerik, ez deus aztertzerik, ez-eta talde berri batzuk sortzeko ezer egiterik. Denbora bezain eragozpen gertatzen zen, berriz, elkarrekiko harrreman falta hura; zaila zen taldeko arazoak ikusten hastea; elkarren artean ezagutzen ez baginen, elka-

rrekin inoiz ez bagara bildu edo elkarrekin sekula arazo baten aurrez aurre aurkitu ez bagara.

Honela bada, garbi dago egunoroko lanak, esperientziak, ikasketak eta aztertze-lanak duela benetako garrantzia, hauek direla gurre aurrera bidean eman behar ditugun pauso edo urratsak, bestela, hasitako zerbaiti iraupena ematea besterik ez dugu eginen. Hontara heltzeko ordea, aurrez behar dugu honen eratzea taxutu.

DIRU KONTUAK

Matrikulatan jaso zen dirua	71.430,
Gastuak: kanpoko irakasleen joan etorri, lan, eta jan; hemengoena, materiala, Bartzelonako ikastaldiko matrikulak, ikastaldi tokia, pedagogia ikastaroa liburua (euskeratzea eta inprimatzea)	64.265
GELDITZEN DENA	7.185

ARANTZA

Bizkaian eta Nafarroan²⁵ eginiko IKASALDIEZ

Bizkaitar eta nafarrek elkarrekin antolatu ditugu aurtengo udarako ikasaldiak.

Egia esan, lehen aldia zelako-edo huts dezenteak egin ditugu eta hurrengo baterako ikasbide izanen zaizkigulakoan gara.

Batetik, ikasaldiak antolatzen hasi gineneko oso berandu zen. Maiatzean, jendeak lanik handiena egin behar izaten duen garaian, hasi bait ginen ikasaldiak antolatzen eta behar ziren Irakasle nahiz Teknikoak bilatzean.

Halere, nolabait antolatu genituen eta bi tokitan antolatu ere: Nafarroko Abarzuzan EGB sailez arduratzen direnentzat. Eta Bizkaiko Durangon ttipien mailan ari direnei begira.

Lehenik, bada, denboraren eskasiagatik ez ditugu inolaz ere na hi bezalako Irakasleak topa ahal izan. Gutienez hilabete pare bat aurretik bere oporretarako planak eginak zituzten eta zoritxarrez gure ikasaldiak eginen ziren egun beretan beste zenbait ikasaldi an tolaturik zenez, ia denak hitz emanik zeuden.

Bestetik, uste genuen talde lana ongi eratuz ikasaldien ardatza izan zitekela eta ahalik ongien egiten saiatu ginen. Baina, gerora ikusi dugunez, talde lana lan luzea da, aurrez elkarrekin lana egin izatea eskatzen du eta ikastaro osoaren zehar. Argi baino argiago dago ikastaroaren zehar talde lanik egin ez den tokietan eta maila tan ezin dela artifizialki egiazko talde lanik munta. Gure kasuan delako EGB ari direnak izan dira nolabaiteko talde lana aurrez egi na ukan dutenek eta ikasaldian ere ongien moldatu direnak.

Hauetara gure ustez ikasaldi honetatik atera behar ditugun ondorioak:

Ikasaldian Teknikoek eman dezaizkiguten azalpen eta linea nagusiak, gero ikastaro osoan landu behar ditugun gaien abiabidea edo hastapena izan daitekela. Ez gutiago baino ezta gehiago ere. Gero ikastaroa dator, lanaroa da gaiak jorratzen jokatuko sasoiak eta lan honen fruitu hurrengo ikasaldia. Ez gaitezke betiko bekatuan eor. Gure ikastaroaren zehar gure lan pertsonalak garrantzirik handiena duen bezala eta hau izanen duen neurrian guk geure lanaz prestatzen dugu hurrengo ikasaldia.

Jakintsu batek ordu batzutan erakus dezaigukena gureganatze ko, esperientziaz baliatu behar dugu. Behin eta berriz saiatu behar dugu. Ordu luzez saiatu behar dugu eta aspertu gabe eginiko saiak teorizatzen ihardun beharko dugu. Bide hau gurea dateke, beste a berriz ez da inoiz gurea izanen, arrotz gertatuko zaigu.

Freinet gora eta behera jende hainitzen ahotan dabil, baina hark ere eguneroko esperientzian finkatu gabeko lana lan hustela jotzen zuen. Hark ere eguneroko egoerak ezartzen dauzkitun kondizionamenduen aurka ez burukatzea arinkeria bezala salatzen zuen. Oztopoak handik eta hemendik ditugu eta oztopoak ez ditu sai orik gabe inork gainditzen ahal.

Gure lanak balio du ala ez du, baina egiaz balio dezan nahi badugu aztertu egin behar dugu eta hitzeko kritika hutsaletatik ekintzetara iragan.

Honela, ikasaldi baten pobretasuna gure ikastaroan eginiko lanaren pobreziaren agerpena besterik ez lizateke izanen eta alderantziz aberastasuna.

URI

Jebako Ikastaldiari Buruko - Zenbait Xehetasun -

Ikastaro honetan geure zenbait ikastola istilu eta iskanbidez inguraturik aurkitu da; istilu garratzak, irakasleak kaleratzea iritxi diren istiluak hain xuxen. Zergatik iskanbila hauk? Heziketa alorrean bide berriak urratu nahi izateagatik, pedagogiazko bide berriak praktikan jartzeagatik esanen nuke. Irakasle langileenak, aurrerakoienak, euskaldunenak, honela, izan dira bortxatuak eta baztertuak.

Hau horrela oñanik, arazo konkreto hauetan oinarrituaz eta bertatik abiatuak udako ikastaldi bat eratzea pentsatu genuen. Heziketa planteamendu serioa baten beharrean aurkitu ginen. Bagenekien ziur aski ikastaldian bertan ez genuela horrelako gauza oso eta borobilik egiterik ahal izanen; dena dela, horretarako pausoak ematea, bideak urratzea, jendea lanean jartzea beharrezko zen.

Beraz, ikastaldi gai funtsezko bati lotua joanen zen. Beste aldetik, ez genuen gizon ospetsuen hitzaldiz jositako ikastaldirik nahi; ikastaldi berari baino aurretiko lanari, geuk egin beharrezko lanari garrantzia gehiago ematen genion. Horrela, nolabaiteko programa egin genuen eta bailaraz gaia sakondu nahirik hasi ginen. Beraz, bere presentzia hutsagatik elkarrizketa mozteko eta galerazteko gai den gizon handi eta errespetagarririk ez genuen inolaz ere nahi; beste aldetik elkarrizketa bizia lortzeko asmoz gaiak aurrez lantzen entseiatu ginen. Honela, lanak egiten ziren heinean beste bailaratan zabalduak izaten ziren.

IKASTALDIAREN NOLABAITEKO PROGRAMA

- = Ikastola-instituzioaren eginkizuna. Zer eman dezake?
- = Zenbait kondizionamenduz inguraturik aurkitzen delarik, ikastolari zer eskatu dezaiokegu?

- = Ikastolaren eginkizun politikoa zertan datza?
- = Pedagogia tradizionalaren azterketa eta kritika
 - Non oinarritzen da?
 - Zer eskaintzen du?
 - Zer giza harreman proposatzen du?
- = Pedagogia berriaren oinarriak
 - Haurraren psikologiako berezitasunak eta berari dagozkion beharrak.
 - 1- Gizartearen kondizionamenduak. Gizarteak zer eskatzen dio haurrari?
- = Pedagogia-tekniken azterketa.

Zer lortu nahi zen?

Soluziorik ez noski; denok parte hartuaz zenbait galdera funtsezko garbiri planteatzea eta galdera horiei erantzuteko bideak urratzen hastea.

Zer lortu da? Eta lortu ez dena zergatik ez da lortu?

A.- Jendeak ez zuen bizitasun osoz partizipatu; dena dela, beste ikastaldietatik honat lortu den aurrerakada nabarmena dela uste dut. Zergatik ez zuen jendeak osoki partizipatu?

- Gaiak, udaran zehar, oso gutti landuak izan zirelako. Gaiak ez lantzeak ez hitzegitea, elkarrizketa guttitzea edo espontaneismoan (garrantzirik gabeko berba jarria) erortzea dakar.

- Programa osotasunean jarraitu ez zelako. Lehen esan bezala, zenbait zirkunstantziagatik zenbait problema ustez gertutik bizien, galderak muineko arazoaren galderak garbiki planteatu gabe zeuden. Orduan, gaiak lantzerakoan, memento askotan behintzat,

ez genion arazoaren muinari heldu, benetako arazotik urrundu egin ginen.



Ondorioz, kasu hanitzetan elkar-
rriketa beste adarretatik joan zen
eta ez genuen aurretik landuriko
gairik ukitu.

- Gaiak lantzeko, aztertzeko,
geure errealitateko datoak jasotzeko
geure metodoaren ahulezi-
az eta eskasiaz ohartu ginen.

- Beste aldetik, programa zehazki
ez konkretatzeaz, nolabaiteko
anarkismoa ekarri zuen, zenbait
mementoetako elkarrizketak ager

tu zeukunez.

- Honetatik at, eta ene iritzi soilez, beti bezala zenbait per-
tsonaia xeblebre entseiatu zen ez dakit oharkabean hala ohartuaz be-
re hitz jariora dela bide besteari bideak moztzen.

B.- Zenbait arazo, zenbait problema garbi planteatu ziren.

- heziketa guztiaren politikotasuna.
- Gure lanak eraman behar duen politiko kutsua.
- honen eskakizunak.

Planteamendu honen arabera zenbait gai nagusi gelditu dira lantze-
ko.

- Pedagogia
- Sikologia
- Inguruaren sozio-politiko azterketa.

Hau da laburki esanik eta, ene iritziz, ikastaldiak eman duena eta emateko utzi duena. Lan metodo bezala esperientzia berri bat izan da, landu beharreko, osatu beharreko esperientzia.

ANTTON



32 BARTZELONATIK DONOSTIRA

Betaniako ikastetxea ikuspegi zabal batean, mila eta heun irakaslez inguratuta ikusi genduen, uztailaren bigarren egunean.


Alderdi askotako jendea, Andaluzi, Zaragoza, Valentzi, Mancha, Madrilekoak, Katalandarrak eta gu euskaldunok osatzen genduen ikastaldia.

Gai sakon eta ondo gertatuak, talde lanetan osatuak. Lanari ekin genion, Psikomotrizitatea, haur atzeratuak, pedagogia, soziologia, gorputz expresioa, matematika eta abar.

Gaiak aukeran ziren eta bakoitzak lau aukeraturik lanean ihardun ginan.

Ttipien lanari, hau da, parbularioari ematen dioten garrantzia i zugarrria da. Haur baten heldutasuna sei urtetan, ez dute neurtzen irakurtzen edo idazten jakitearekin, beren gorputzaren jabe izatean baizik, esku, hatz, begi, ezker eskuin, alderdi bat eta bestea ezagu-

tu eta garaitzean, esate baterako mugimendu guzien askatasunean. Psikomotrizitatean oinarritzen dute pedagogi eta ikasketa guzia. Haur bat sei urtekin askatua ez badago, expresioan heldua, bere esku eta hatzaren jabe ez dela, zailtasunak izango ditu, bai irakurketan eta idatz lanetan. Adin horretarako bere gorputz osoaren ezazuerik ez badu re-educazioaren bitartez lortu beharko litzake, edo bestalde ez du lortuko bere izakeraren desarroilo guzia.



Pedagogi honen aurrean gure responsabilidade handia ikusi dugu. Ikastaldi honetan sei ordu ta erdiko lanaren ondoren beste biler

ra sail bat izan genituen, programatik kanpora. Politika mailetik hasi eta irakasle langileen eskubideetara irixteraino. Lan-kontratoak, segurantziak eta abar.

Lege berriaren aurrean izan dituzten burrukak, ikastetxetik kanpora botatzeak, ideologi ezberdinen eztabaidak, titulorik ezak, eta abar. Arazo hauen aurrean postura bat harturik, alkarrekiko asanbleak sortu ziren ekintzak aurrera eramateko eta ondorio bezala barriotan organizatuaz.

Politika mailan eskola eta gizartea nola dijoazen lotuta aztertu gendun, baita lege berriaren ondorioak ere, kontrakultura bat sortu, bide berriak urratu nahiean.

Ikusten genduen kontrakultura hori programa legala baten barruan ere zenbateraino sor liteken. Adi bidez haurrari espiritu kritiko bat nola eman, nola responsabilizatu, ingurua ezagutu eta abar.

Eskola askoren berri jakin dugu, benetan lan sakona desarroitzen ari dire. Hori guzia bizi ondoren itzuli ginen gure herrira. Ez ote dugu guk ere holakorik lortuko?

MIREN



Freinet-en IKASALDIA ³⁴ BAZAS-EN

Jakina denez Freinet eskola aski hedatua da Frantzia. Eta ikasaldiak jende gehiegirik bil ez dezaten eskualdeak egin ohi dira hango ikasaldiak. Aurten "sud-ouest" eskualdeak Bazas-en egin zuen bere ikasaldia.

Bertara ginenok 700 bat lagun ginen bai Frantziako eta bai beste zenbait lurraldeetako jendea bildu zen. Lagun asko izanik ere ongi eraturiko ikasaldia zen hau. Jakina guk ez bezala lana urte bete aurretik prestatzen hasten dira, edo hobeki esan urte guztiko lanak ikasaldiari begira egiten dituzte. Talde antolatzaileak ikasaldiaren amaian ikusiriko hutsak ongi gogoan hartzen ditu hurrengo baterako.



hautatuz gai sail batez eritzi bat ukan zezaken.

TAILERRETAKO LANA

40-tik ^{goren} tailer muntatuak ziren delako etxe prefabrikatueta. Jakina, han genituen begien bistan hurrek ikastaroan eginiko lanez osaturiko esposiona eder bat. Materialak nola lanak era guztietako ak ziren.

Tailer horietako bakoitzean bazen bertan esperientziak eta gra

bazioak egiteko beharreko ziren tresnak. Eta tailer bakoitzean atez ratzen ziren lan-saioak esposizionearen aberasgarri horretan esegitzen ziren. Oso lan ederrak atera ziren.

Biziki interesgarri entzun ikusgailuen tailerra iruditu zitzaigun. Jakina honelako lan bat egin ahal izateko tresna ugariak behar dira eta ez da erraz gertatzen herri bakoitzean eros ahal izatea. Nola diapositibak egin ere erakutsi zeukuten eta haurrek berek eginiko pantailak erabil daitezkeela adierazi zeukuten.

Matematikarako tailerrak bi ziren. Batean idatziriko lanak edo lan teorikoak agertzen ziren batikbat eta bestean saiakerak egiteko erakuntzetako materialak. Orobat zientziak irakasteko antolatutako tailerrean ere. Benetan harrigarri materialaren aberastasuna eta ezberdintasuna.

Arte tailerrean teknika berri ugari ikasi dugu. Haseran herabegintzen baina berandugabe oso gogo handiz egiten genuen lan hau. Hemen ere materiala oso aberatsa ikusten zen.

Antzerki taldeek gauzez egiten zituzten bere saioak eta ondoren elkarrizketa aberasgarriak. Elkarrizketa hauetan jende askok parte hartzen zuen eta gehienetan eritzi serioak botatzen zituzten.


Inguruaren azterketaz arduratzen zen taldeak inguruko langile eta nekazarien artean inkestak egiten ihardun ziren eta ondoren mahain biribil batetan lorturiko erresultadoak eztabaidatzeko bidea egiten zen.

HAN ZEN

Liburu Berriak

Aspaldi danik, zenbait irakaslek eskaturik, prestatzen hasia zen aldizkari hau liburu berrien informazio zerbitzua. Liburu berrien, liburu eta publikazio interesgarrien azalpen labur bat eskaini behar zuen aldizkariak. Eta hasi zen eskaintzen ere hain poliki biz pahiru alditan. Guk orduan, uste ere izan genuen lan horri ekin zionak jarraipen ere emanen zuela, baina ez zen horrela gertatu.

Ez litzake, bada, miresgarri horrelako lantxoak norbaitek har dezan. Lantxoak diot, ez bait dut uste eginkizun gaitza eta sobera nekeza denik, baina bai norberetzat nahiz bestearentzat aski probetxagarria. Bidean, dei bat luzatzen dut, norbait atxiki ahal balitz gisa honetako lanari, eta berebat, zerbitzu egokia emanen lioke irakasle jendeari.



Ez luke egungo liburuen nondik-nor norakoa jarraitzea baizik izanen. Bereziki, pedagogiaren alorra eta bere ingurua, guti edo gehiago hartu beharko lituzke, eta aski luke berak irakurri ahala zenbait nota har dezan eta paperean idatzi. Eduki lezake segurantza oso

a, hemen, aldizkarian, hilabete oro libre dadukela orrialde batn edo beste.

Oraingoan, eskuartearen argitaratze emateke prestatu edo inprimatu diren liburuak aipatu ditut, gure liburuak soilki.

a) Pedagogia eta gizartea.- Gure adiskide min eta lankide zintzo den Eusebio Osari zor diogun obra. Liburu bipila benetan. Lehenik, gizarte kapitalista batek eman ohi duen heziketak zer kontu duen eta beronen akats galantak salatzen entseiatzen da. Gero, heziketa asmatzailearen berri ematen du, Freire-en ideia nagusienei jarraituz. Euskara ere, aski borobila eta erraza du egun-

go irakasleok irakurri, ikasi, eztabaidatu eta bidean argia ukan dezagun liburu jatorra.

b) Matematika berria.- Lehen, noizbait, aipatu izan dugu liburu honen berri: Matematika berria, edo Matematikaren hastape-nak, edo gure artean elkar aditzeko: Feliren Matematika esan ohi duguna. Zorioneko matematika. Ez zen behintzat bihar goizean argia hastean mundura etortzeko matematika. Beti egina den eta beti egiteke den matematika, aspaldi danik inprimatzen dena eta inoiz argitatzeko ez dena. Datorrela, bada, lehen bai lehen, ttipien ande-reñoek zain bait daduzka eta beso zabalik hartuko dute.

d) Fitxa-liburuak.- 1.- Hizkuntza edo mintzairari buruzkoa.

Hau ere beti etortzekotan zena; badator, halere, azkenean. Hara, 3.en eta 4.en mailako fitxa-liburu da. Hobeto esan, bi liburu dira. Han eta hemen zenbait ikastoletan frogatuak, eta esperientzia haue-n arabera, xuxenketak emanik edo orrazturik dena. Agidenez, ongi egina da. Ez du inorako lotsarik, Xabier Mendiguren adiskideak eskaini daukun lan honek.

2.- Matematikari buruz. Beste bi libu-

ru: 2.en eta 3.en mailarako egokituak. Hain ezaguna dugun Larreso rok moldatu ditu. Marrazkiak bukatzen ari ziren egunotan, inprima-tzera eraman ahal izateko.

e) Ikastola liburutegia.- Lau liburuxka berrirekin ugalduko du berriro bere saila. Segidan, beste zenbait ere ondotik prestatzen edo prestatuak dira. Uste dugu pausaje bat ezar ahal izanen zaiola urte honetan zehar sail hori, zeren-eta ekipo bat bildu bide bait da bereziki sail honetaz arduratzeko eta ekipo honen inguru ahal be-zainbat lankide biltzeko.

f) Irakurgaiak.- Zer nolabait deitzeko irakurgai izena ematen diot, eta sail berriak dira, bi sail, hain, xuxen. Hara konpre-
hensiboa da irakurketa hori. Irakurketa hori, irakurketa hori, irakurketa hori.

ko, zer esan nahi den :Lehen-irudi / Lehen-hitzak delako saila irakurtzen ikasteko metodo bat da. Aipatzen dudan irakurgaien bi sail haüetariko lehena (ez dakit oraino zer izen emanen zaion) irakurketa hastapenak izanen lirateke, hots, irakurgai erraz eta sinpleak:haurrek berek eginga marrazki lana eta testoa ere berek moldatua. Hala nola, bederen sei liburuxka, prestaturik:Katua, Elurra...

Eta bigarren saila ere irakurgaiena, baina inprimatzeko letra molde adu, eta marrazkiak ere osatuago. Beraz, liburuxka hauk haurra irakurtzen trebatzeko dira, eta nola idurimenez nahiz marrazki aski borobildua den gaia, lehen sailak baino mami gehiago eduki arren, frango egokia ematen du bigarren sail honek ere.

g) Ikasteko.- Hau ezaguna da, eta ez guk argitaratua ere; I-txaropenak bere gain harturik argitara eman zuen lehen, eta orain ere bai, bigarren aldiz. Bada ikasteko, bigarren maila bat, prestatu-rik, bederen urte-ta erdi honetan. Ez dira, nonbait, ausartu bigarren maila lehenik ematen, eta honen ordainez lehena eman dute bigarrenez argitara. Ahiturik zen, eta sobera liburu ez dugunez, ongi e-tor dadila, baina guk bigarrena nahi genuen bietarik batean, eta ez orain, orain baino aski lehenago, zeren-eta gisa honetako liburuen denbora sobera pasaturik bait da. Hau da, behinik behin, hortik ze-har dabilen iritzia.


Horiek horrela, hona hemen "gure liburuei" buruz mementoan dagoena. Gaur egun, jende multzo bat ari da gure artean buru-betlarri lan honi atxikirik, ea nondik berri berriak urra ditzakegun, zeren-eta ez bait dator hemen zeruko mana gozorik. Jende zintzoa, jende langilea, noski.

Baina behar dugu multzoa oraino ugaltu. Sail batean sartzeko eta lankide izateko gauza ez dena, sar dadila beste batetan. Bada hautapena egiteko egokierarik asko. Ongi dakigu denok idazle bi-pil ez gaitzkeela izan. Ez dugu berdín balio. Halere, bederen egun oro ikastolan egiten ari den lana zer den badaki nork berak eta hori buruan ongi iraulirik duenez, tarteka aldizkarirako artikulotxo bat emateko edonor da gai.

Hau ere egiten ez duena ez da ezinaren gatik, alferkeriarengatik baizik.

Zerbait idazten hasten delarik, ohartzen da bat zer gostatzen den idaztea, eta orduan sortzen zaio bestek eginaren estimua ere. Alegia, liburuak argitaratu bakarrik ez-baina, erosi, zabaldu, liburu tegia norberetzat eta haurrentzat, irakurri eta ahal den sakonen kritikatzera eskatzen da. Bestenaz, norberak ez lanik egiteaz aparte, lanean hasi edo ari denari gogoak kentzeko ere trebe bait da horrelakoa.

Barkaiztegi



Din dan... Boleran

1) Udako ikastaldiak.-

Bailara bakoitzak, edo bizpahiru elkarren gana bildurik baina, egin du bere ikastaldia, aurrez, zegokion gaia eta programa moldaturik.

Bailaraka egiteak (orain eskualdea esan behar omen), beraz, eskualdeka egiteak badu bere alde ona. Halere, guztiekiko prolema batzuk aztertzea eta multzo handian sortzen den giro on hori ez du gu ezagutu aurten. Ez lehengo urtean ere. Hura makurrago izan zen. Multzo handiko giro honi agur eiteaz etsipena hartu beharrean ginen eta hartu ere harturik gara, denok ditugu aztopoak gogoan, baina sistema hau ere ez da urre gorria.

Loiolak harritu gaitu. Azker-urteotako gisa, adierazia zuen aldez aurretik xehetasun guztiz ikastaldia, eta segurki dakigunez ez du egin. Ez dakiguna zera da: zergatik ez eta zer oztopo ukan duen.

Goragoko orrialdietan zehazkiago aipatzen den bezala, hortik zehar han-hemenka ibilirik dira beste zenbait irakasle. Hala nola: Bartzelonan, Madriden, Frantzian....

2) Ikastola berriak.-

Mugaz handik heldu zaizkigun berrien arabera, Maulek bata eta Askainek bestea, herri biok ikastola bana eraiki dute eta lanean hasi ikastaroarekin batera. Ikastola berri bat eraikitzeak, nonahi dela ere, hainitz pozten gaitu, baina Maulekoak mhots, Zuberoaren hiruburukoak, areago. Goresmenik handienak desiratzen dizkiotegu bi-biei ere.

3) Irakaskintza Nafarroan.-

Albiriste bikoitza Nafarroatik. Nafar-Foruetan, nonbait, argiro zen eskubidea eskatu diote nafarrek Espainiako Gobernuari, eta honek, bidezko den bezala, eman egin die. Alegia, hemendik aintzina, Diputazioa egiten da kargu Nafarroa osoan irakaskintzaren antolamenduaz. Hau dena, beste gabe, pozgarri gertatu zaigu eta begi onez ikusten dugula ezin ezkuta, zeren-eta herria bere eskubi dez balia dadin bitarteko ona bait da irakaskintza bere gain eduki tzea.

Alabaina, badu nonbait gakoren bat afera onek, eta hau da bigarrenik jakin duguna: "Principe de Viana" delako Elkargoaren bitartez azken-urteotan Nafarroan hainbat lan euskararen alorrean egin duten gizon batzuek: Cortes Izal, Satrustegi eta Lasartek dimititu egin dutela. Badu segurki honek ikastolekin zer ikusirik eta horregatik, hain xuxen, ematen dugu, bata pozgarri bezala, bestea tristagarri zaikula aitortuaz.

4) Ttipien eskolak.-

Araba-Bizkaia-Gipuzkoan, ttipien mailako hainbat eskola muntatu ditu Estatuak behin-behingoan. Herri bakoitzaren hauzo desberdinetan sakabanaturik muntatu ere. Aski jokabide egokia, naski, zeren haur ttipien etxetik ahalik hurbilen eskola izatea bait da desideragarri. Gainera, eskola hauetarik hainbat eta hainbat bilingüe izanen direla adierazi dute. Are hobe. Ez ahal da hitz hutsetan, behintzat, geldituko hau.


5) Aditza eta hiztegia.-

Euskal-aditz batuari buruz, estudio sakon bat egin du Euskaltzaindiak eraginik, euskalzain jakitun batzorde batek. Uste dugu lehen bai lehen argitara emanen duela, eta halaber, arazo honetan

dugun zenbait korapilo askatzeko bideak egin. Bestalde, zortzi urte bitarteko haurren eskola-hiztegia ere prestatua da, eta Euskal-zaindiak gaindiki onartua ere bai. Bada alde ederra, duela bospa-sei urtetik honat euskararen eremuan lan egin nahi duenarentzat.

BERRIKETARI

72-IX-15an



NON - ZER

-	
- Apurrak	1
- Aintzin solasa	2
- Haurra eta bere berezitasunak	5
- Heziketa askatzailea	12
- Goiherriko ikastaldia	14
- Taldeen dinamika	19
- Bet-herri aldean	23
- Bizkaian eta Nafarroan eginiko ikasaldiez	25
- Debako ikastaldiari buruzko zenbait xehetasun	27
- Bartzelonatik Donostira	31
- Freinet-ikasaldia Bazas-en	34
- Liburu berriak	36
- Din dan... boleran	40

